

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 23koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, Institutuko langileen plantilla egonkortzeko 2022ko lan-eskaintza publikoa onartzen duena.

Apirilaren 20ko 3/2007 Legearen bidez, Etxepare Euskal Institutua sortu eta arautu zen, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo euskara eta euskal kultura sustatzeko, hedatzeko eta proiektatzeko, edozein hizkuntza ofizialetan, adierazpenetan, euskarrietan, bitartekoetan eta adierazpideetan.

Etxepare Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailari atxikia, eta berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna ditu

Maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak, Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jardueraraudua onartzen duenak, 6.4 artikuluan xedatzen du Institutuko zuzendariari dagokiola zehaztea lanpostuetara iristeko araubidea, hautaketa-proben betekizunak eta ezaugarriak, bai eta lanpostuak betetzeko eta lanbide-sustapenerako prozeduren deialdia, kudeaketa eta ebazpena ere, merezimendu-, gaitasun-, berdintasun- eta publikotasun-printzipioekin bat etorritz. Era berean, 18. artikuluko b) eta d) idatz-zatietan, hurrenez hurren, adierazten da zuzendariari dagokiola Zuzendaritza Kontseiluari lanpostuen zerrenda eta plantilla proposatzea, onar ditzan.

Horretarako, 2011ko ekainaren 23ko Ebazpenaren bidez, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak Lanpostuen Zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindu zuen. Ebazpen hori geroago aldatu zen, 2020ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaren bidez

Abenduaren 28ko 20/2021 Legea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa, indarrean sartu zenetik, erakunde publikoek zenbait neurri hartu behar dituzte enplegatu publikoen behin-behinekotasuna kontrolatzeko eta aldi baterako enplegua egonkortzeko, lanpostuak egonkortzeko prozesuak artikulatuz

Horregatik guztiagatik, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 22. artikuluan eta hurrengoetan eta Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.- Etxepare Euskal Institutuaren 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea. Eskaintza horretan sartzeko dira I. eranskinean zerrendatzen diren lan-kontratuko langileen plantillako plazak.

2.- Ebazpen hau argitara dadila agintzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke EEIko Zuzendaritza Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko maiatzaren 23a

La Directora del Instituto Vasco Etxepare,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.

I ERANSKINA

Lanpostua	Lanpostuaren izena	Bete Era	Kateg.	Dotaz.	Hizk. Esk.	Derr. Eguna	Egonkortze Tasa	Txanda	Sistema
EL 03	Euskara eta kultura sustatzeko eta hedatzeko teknikaria	L.L.	12	1	4	2010.03.31	Egonkortze Tasa Legea 20/2021 6. X.G.	Txanda librea	Lehiaketa
EL 03	Euskara eta kultura sustatzeko eta hedatzeko teknikaria	L.L.	12	2	4	2010.03.31	Egonkortze Tasa Legea 20/2021 6. X.G.	Txanda librea	Lehiaketa
EL 03	Euskara eta kultura sustatzeko eta hedatzeko teknikaria	L.L.	12	3	3	2010.03.31	Egonkortze Tasa Legea 20/2021 6. X.G.	Txanda librea	Lehiaketa
EL 04	Zuzendaritza-idazkaria	L.L.	07	1	3	2010.03.31	Egonkortze Tasa Legea 20/2021 6. X.G.	Txanda librea	Lehiaketa